


## Apirilaren 23a, Liburuaren Munduko Eguna

### ***EAEko gazteen ia erdiek aisialdiko liburuak irakurtzen dituztela diote, neskek mutilek baino gehiago***

Liburuaren Munduko Eguna dela eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko 15 eta 29 urte bitarteko gazteei eta liburuak irakurtzeari eta eskuratzeari buruzko datu batzuk aztertu ditugu [Gazteen Euskal Behatokian](#). Datu horiek [Kulturaren Euskal Behatokiak](#) eman dizkigu, eta 2007-2008ko EAEko kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistiketatik ateratakoak dira.

Datu horiek adierazten dute EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %38,6k bere lanbidearekin edo ikasketekin lotutako libururen bat irakurri dutela azken hilabeteetan. Ehuneko hori asko aldatzen da adinaren arabera; hain zuzen ere, 20 urtetik beherakoen artean %59,8k irakurri dute horrelako libururen bat (kontuan hartu behar da adin-talde horretan hamarretik bederatzik ikasleak direla); nagusien taldean (25-29 urtekoena), aldiz, %26,7k irakurri dute horrelako libururen bat.

Ehuneko handiagoak, gazteen %44,6k, aisia-jarduera gisa libururen bat irakurri dute azken hilabeteetan. Osera, %15,8k diote ez dutela horrelako libururik inoiz irakurtzen.




Liburuak aisia-jarduera gisa irakurtzea ohikoagoa da emakumeen artean (%49,4) gizonen artean baino (%40,2). Ikasketekin edo lanarekin lotutako liburuak irakurtzeari dagokionez, aitzitik, ez da sexuaren araberrako alderik nabaritzen.

Bestalde, azken hilean aisia-jarduera gisa libururen bat irakurri duten gazteei eta biztanleria osoari dagozkien datuak antzekoak dira (%44,6 eta %45,7, hurrenez hurren).


Ez dago alde nabarmenik liburuak irakurtzeko interesari dagokionez ere. Oit 10era bitarteko eskalan, interes hori 6,5ekoa da gazteengan eta 6,8koa biztanleria orokorrean. Baina gizonen eta emakumeen artean badago desberdintasunik, interes-maila altuagoa baita bigarrenen artean (7,0) lehenengoen artean (6,0) baino.

Ondoren, biztanleria elebidunak euskarazko liburuak zein neurritan irakurtzen dituen aztertu dugu. Esan beharra dago ohitura hori nahikoa zabalduago dagoela gazte elebidunen artean (%43,5) EAeko biztanleria elebidun osoaren artean (%35,7) baino.



Bukatzeko, esan dezakegu liburuak irakurtzeko ohitura duten gazteek gehienbat denda espezializatu txikietan eskuratzen dituztela liburu horiek (%53,5), eta ondoren denda-kate handi bateko denda espezializatu batean (%25,4) eta liburutegietako maileguaren bitartez (%22,8). Bestalde, aipatu behar da gazteen %3k Internet bidez eskuratzen dituztela liburuak. Azken bide hori gehiago erabiltzen dute gizonek emakumeek baino.

## Liburuak eskuratzeko ohiko lekua (%)



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Kulturaren Euskal Behatokiaren datuetatik abiatuta*

*Oinarria: Liburuak irakurtzen dituzten gazteak*